

1.- BALOREZKO PROPOSAMENA

Ezagutzen al duzue Japoniako tradizioen bat? Zer tradizio ematen zen, Nobita eta Doraemon, Shin Chan... eta horrelako marrazki bizidunetan? Orain dela ehunka urtetik Japoniarren etxebizitzak lurretik bi hatzetara eraikiak izaten ziren gutxi gora behera. Hori dela eta, hezetasuna saihestu eta lur zoruak edo beraien ohiturarako "Tatami"-ak epelak mantentzen zituzten. Hala ere, etxebizitzaren sarrerak, punturik baxuenak izanik, lurra eskuratzen zuten.

Hauen lur zoruak hain erosoak izatearen ondorioz beraien bizi praktiko guztia gainean eramaten hasi ziren. Honen ondorio dira, eserita jateak, lur zoruan lokartzeak, eta nola ez, hanka hutsik ibiltzeak. "Tatami"-aren garbitasuna oso garrantzitsua da hauen kulturean, beraz kalean erabilitako zapatilekin etxean sartzea ez zenez oso egokia ikusi, hauen ohitura da hauek sarreran uztea.

Idea hau kontuan hartuz, hurrengoa planteatu dugu ...

Garbitasunarekin hain zorrotzak garenez, zergatik ez dugu horrelako ohiturarik hartu?

Gure proiektua diseinatzeko orduan "garbitasuna" eta "erosotasuna" izango dira hitz klabeak. Bezeroekin bat egonez gain, etxea garbi mantentzea eta gure erosotasuna hobetzea izango baitira gure helburuak. Beraz, Japoniarren ohiturekin batera, bezeroei berritasuna erakusten dien produktu bat aurkeztu nahi dugu, gaur egungo bizitzatan praktikotasun handia duen produktua.

Zoru aldakorrak dituen zapatilak proposatzen ditugu. Hau da, gure zapatek zoru ezberdinak edukiz, behar ditugun momentuetan erabili ahal izango ditugu, adibidez, egun euritsuetan, euritarako egokiak diren zoruak jarri ahal izango ditugu zapata kendu behar izan gabe.

Produktuaren balorea kualitatiboa dela esan genezake, hau da, gure eginkizuna diseinuan dago pentsatuta.